



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, SOZIETATEEN GAINEN ZERGAREN ERREGELAMENDUA ONETSI ZUEN ABUZTUAREN 1EKO 41/2014 FORU DEKRETUA ALDATZEKO FORU DEKRETU PROIEKTUAZ.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituenak, I. eranskinen 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak).

Esandakoa betetzeko, ondoko kontsulta hau planteatzen da, sozietateen gaineko zergaren erregelamendua aldatuko duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariak erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2019ko apirilaren 16ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Europar Batasunak hainbat zuzentarau onetsi izanak behartu egiten du sozietateen gaineko zergaren erregelamendua aldatzea.
--------------------	---



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Erregelamendua Europar Batasunaren araudira moldatzea
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Beharrezkoa da Arabako arau xedapenak Europako zuzentarauetara moldatzea.
HELBURUAK	Sozietateen gaineko zergaren erregelamendua moldatzea.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Irizten zaio arautze aukerarik egokiena dela.